



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan** argazkiak, **herriz herri**

Portugalete, 1960-2010

2015eko uztaila

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen argazkiak,
herriz herri

Portugalete, 1960-2010

2015eko uztaila

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena. 6

Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**.

1. ETA, ETAm eta Iraultzak bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9
 2. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 23
 3. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak. 27
-

Erabilitako iturri eta zerrendak. 31

Aurkezpena

Euskal kasuarekin loturik 1960tik 2010era bitartean terrorismoaren eta beste edozein motatako indarkeria politikoaren ondorioz izandako bizitzeko eskubidearen urraketak bildu eta argitalpen bat prestatu du Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak. Argitalpenak berritasun nagusi bat du: datuak udalerriz udalerriz ordenaturik ematea, helburua udalei datu-base bat ematea denez gero. Liburuxka hau Portugaleteri dagokiona da.

Lan hau egiteko, biktimei buruz argitaratu diren zerrenda guzti-guztiak berrikusi eta erkatu ditugu: Barne Ministerioarenak, biktimen elkarteek, hedabideek, egile partikularrenak, Nafarroako Gobernuarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak, zehatz esatera. Datu horiek guztiak zehatz eta zorrotz laburtzea eta integratzea lan katramilatsu eta labaina da: kontsultatu ditugun datu-baseen artean alde nabarmenak daude, eta horregatik da katramilatsua; eta, bestalde, informazio honek sufrimendu latza eragin diezaieke hainbat pertsona eta familiari, eta horregatik da labaina. Esku artean daukagun hauek ez baitira, bistan denez, datu estatistiko hutsak.

Kasu gehien-gehieni dagokienez, nahikoa informazio eskuratu dugu, eta, gainera, informazio guztiak bat datoz. Zenbait gertakariri buruz (60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan gertatutako askori buruz, batik bat), ordea, ez dugu behar beste informazio biltzerik izan, edo eskura genituenak bertsio kontrajarri eta datu nahasgarriak baino ez ziren, eta, beraz, oraindik ez daukagu haiei buruz ondorio garbirik ateratzeko modurik. Alde horretatik, lan hau ez dago behin betiko dokumentutzat hartzerik, bertan agertzen diren kasu asko eta asko osatu eta hobetu egin behar baitira.

Nolanahi ere, datu guztiak oso sakon aztertu eta erkatu ditugu, eta, beraz, garbi esan dezakegu aztergai hartu ditugun gertakarien errealitate objektiboaren irudi zorrotz eta hurbila ematen dela bilduma honetan. Lehen aldiz, bizitzeko eskubidearen urraketa guztiak bildu eta biktimen izen-abizenak ematen dira argitalpen batean, hilketa eta biktima bakar bat ere kanpoan uzteke (nahi gabeko hutsegite edo omisio bat edo beste gorabehera).

Liburuxka hauetako bakoitzak udalerriz bat hartzen du ardatz, eta datu-base bana ematen. Hala, udalerriz udalerriz egindako erretratu hauetan gaur egun arte eskura dugun informazioaren berri ematen da. Dena dela, dokumentu honetan ez da biktimen aitoren ofizialik egiten: bizitzeko eskubidearen urraketei buruzko

informazioa ematen da. Oraindik biktimen aitorten instituzionala amaitzeke dago. Eztabaida bete-betean gaude. Hala ere, berariazko helburua beste bat izan arren, lan honek ekarpen bat egin nahi dio, berdintasun-printzipioari estu-estu jarraituz, ezinbestez denon artean egin beharreko biktimen aitortzari.

Erretratu hauen helburu nagusia hauxe da: Euskadiko udalei beren herri-hiriei buruzko ahalik eta informazio gehiena ematea, horren bidez oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko. Alde horretatik, lan-talde honek bat egiten du Euskadiko udalek horrenbestetan adierazitakoarekin, ondo ulertzen baitugu zer-nolako zailtasunak izan dituzten azken 50 urteotan indarkeriak eta terrorismoak beren herri-hirietan eragindako biktimei buruz behar beste informazio eskuratzeko (Memoriaren Mapa eta antzeko beste ekimen batzuk martxan jarri nahi izan direnean, esate baterako).

Udalerrri bakoitzari dagokion liburuxkan, udalerrri horretan bertan eraildako biktimak aipatzen dira, bai eta, beste lekuren batean hil arren, udalerrri horretan jaio edo bizitakoak ere. Edukia bi ataletan egituratu dugu: lehenbizikoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nabarmentzat har daitezkeen kasuak zerrendatzen dira; bigarrenan, berriz, ikerketa-lan handiagoa eskatzen dutenak. Lehen blokearen barruan, hilketak egiletzaren arabera eta ordena kronologikoan aurkezten ditugu.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak bizitzeko eskubidearen urraketatzat jotzen ez dituen kasuak, jakina, ez ditugu erretratu hauetan aintzat hartu, nahiz eta kasu horiek ere lotuta dauden gertatu zireneko indarkeriazko testuinguruarekin. Mota horretako kasuak dira, adibidez, suizidioak, indarkeriazko ekintza batean jazotako heriotzak, polizien arteko ustekabeko tiroketak eta abar. Nolanahi ere, hildako horien senitartekoek ere merezi dute, jakina, gure enpatia eta sentiberatasuna, gizalegeak hala agintzen baitu.

Hitz batean, agiri honen xedea argi-argia da: gure udaletako arduradunei oroitzapenezko proiektuak egiteko baliabide egoki bat ematea. Iraganen gurean pairatu dugun indarkeriaren aurrean, erakundeok memoria kritiko bat sustatzeko eginbeharra daukagu. Biktimen oroitzapenari bizirik eutsi behar zaio, gaur egun eta etorkizunean giza eskubideekin konprometituri jarraituko badugu; bizitzeko eskubidearekin eta pertsona guztien duintasunarekin, batik bat.

Sekula gehiago egin behar ez denari eta sekula ahaztu behar ez dugunari buruzko erretratu bana ematen da liburuxka hauetan. Erretratu diogu, hemen aipatzen direnek aurpegi eta begiak baitaizkate. Erretratu batek pertsona konkretu bat adierazten du; izen-abizen, senitarteko, adiskide, historia, amets eta proiektu konkretuak dauzkan pertsona bat, alegia. Bidegabeki hildako biktima bakoitzaren sufrimenduaren giza erretratua da agiri hau.

Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

1. **ETA, ETAm** eta **Iraultzak** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Martín Durán Grande

Polizia-operatiboaren data: 1974/09/11.

Heriotzaren eguna: 1974/09/15.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Portugalete (Bizkaia).

Bizilekua: Erandio (Bizkaia).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Guardia zibila.

Egiletza: ETA (zatiketaren aurretik).

Lekua: Bilboko Areilza Doktoarearen kalean (Bizkaia).

Prozedura: Tiro-trukea atxiloketa batean.

Datu gehiago: Polizia-operatiboan ETako kide bat ere hil zen, Juan José Urzelai Imaz, eta bi agente, ETako beste militante bat eta emakume zibil bat zauritu ziren: Andre Villamore Silva de Touro. Poliziaren jarduketan María Dolores González Katarain, “Yoyes”, atxilotu zuten.

2

José María Portell Manso

Data: 1978/06/28.

Adina: 44 urte.

Non jaioa: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Hiru seme eta bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Kazetaria. Bilboko *Hoja de Lunes*en zuzendaria eta *La Gaceta del Norte*ko erredaktorea. Aldi berean, kazetaritzako korrespontsala zen, zenbait komunikabide eta agentziatarako. Bitartekaritza-lanak egin zituen Espainiako Gobernuaren eta ETArekin artean. "Euskadi: la amnistía arrancada" (1977) eta "Los hombres de ETA" (1974) argitalpenen idazlea.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bere ibilgailuaren barruan, bere etxetik hurbil, Portugaleten.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: ETAk eraildako lehenengo kazetaria izan zen.

3

Manuel Ferreira Simois

Data: 1979/08/13.

Adina: 47 urte.

Non jaioa: Untes (Ourense).

Bizilekua: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Zortzi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Udaltzaina.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Portugaleten, General Castañosen eta Gregorio Uzkianoren arteko bidegurutzean zauritu zuten eta San Juan de Dios klinikara eraman zuten, eta bertan hil zen.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Portugaleteko Udalaren Osoko Bilkurak bi luto-egun egitea erabaki zuen.

4

Manuel Fuentes Fontán

Data: 1979/10/31.

Adina: 29 urte.

Non jaioa: Pontevedra.

Destinoa: Santurtziko kuartela (Bizkaia), bertan bizi baitzen.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Guardia zibila.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bere ibilgailuaren barruan, bere neskalagunaren etxetik irteten ari zenean, Portugaleten, Santurtziko kuartelera joateko.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Hurrengo egunean, atentatuaren aurka agertzeko manifestazioa egin zen Portugaleten.

5

Manuel Benito José

Atentatuaren data: 1983/10/03.

Heriotzaren eguna: 1983/10/05.

Adina: 36 urte.

Non jaioa: Salamanca.

Destinoa: Portugaleteko komisaria (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Polizia Nazionaleko kidea.

Egiletza: ETAm.

Heriotza-lekua: Gurutzetako Ospitalean; bertan egon zen koman, Portugaleteko San Nikolas kaleko Lugo tabernan tiro egin ziotenean jasandako zaurien ondorioz.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Udalaren omenaldia, 2002eko abenduaren 5ean.

6

Alberto Aznar Feix

Data: 1984/07/02.

Adina: 64 urte.

Non jaioa: Bilbao (Bizkaia).

Seme-alabak: Semea eta alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Armadako artilleriako teniente koronela.

Egiletza: ETA.

Lekua: Bi lagunek tiro egin zioten bizi zen higiezinako ataria ixten ari zenean, Portugaleteko María Díaz de Haro kalean (Bizkaia).

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Atentatua biktima auzotar batekin eta amarekin, 92 urtekoa, hizketan ari zela gertatu zen; amak konortea galdu zuen, bere semearen erailketaren aurrean.

7

Antonio Torrón Santamaría

Data: 1984/07/19.

Adina: 55 urte.

Non jaioa: Burgos.

Bizilekua: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Semea eta alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Guardia zibila.

Destinoa: Guardia Zibilaren Zerga Zaintzako Zerbitzuan, Santurtziko portuan (Bizkaia).

Egiletza: ETA.

Lekua: Bere etxebizitzaren ondoan, Portugaleteko Maestro Zubeldia kalean.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua, tiro batez buruan.

8

José María Martínez Martínez-Cubero

Data: 1984/09/21.

Adina: 41 urte.

Non jaioa: León.

Bizilekua: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Merkataria. Urrearen eta etxetresna elektrikoen eta bideoen salerosketa zeukan lanbide, Portugaleten.

Egiletza: ETA.

Lekua: Abandonatutako meatze batean, Larreinetatik hurbil, Trapagaranen (Bizkaia).

Prozedura: Bahitua eta su-arma bidez eraila. Gorpua aurkitu zenean, tiro bat zeukan garondoan eta hankak eta eskuak zinta isolatzailearekin lotuta.

Datu gehiago: Guardia Zibilaren lehenengo hipotesiak izan ziren kontuak kitatzearen kasua izan zitekeela, pribatua (*El País*), baina ETAk Egin egunkariari atentatua erreibindikatu zion, eta gorpua zein tokitan zegoen jakinarazi zion. Hamar urte geroago, *Euskadi y la Libertad* argitalpenaren "Acciones armadas" atalean (VI. liburukia, 1994koa), ez da atentatua jasotzen.

9

Agapito Sánchez Angulo

Data: 1985/01/19.

Adina: 30 urte.

Non jaioa: Castro Urdiales (Kantabria).

Bizilekua: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Portugaleteko ile-apaindegi bateko jabea.

Egiletza: ETA.

Lekua: Ile-apaindegiaren atzeko aldean, General Castaños kalean, Portugaleten.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua, establezimendutik bezeroak atera ondoren.

Datu gehiago: Herriko Udalak 2003ko urtarrilean omenaldia egin zion biktimari eta bere familiari.

10

José Millarengo De Bernardo

Data: 1985/06/12.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Villamayor (A Coruña).

Bizilekua: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Itsas Komandantziaren Brigada.

Egiletza: ETA.

Lekua: Portugaleteko Errepelega auzoko Aires kalean, biktima bizi zen lekuan.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Antza denez, erasotzaileak eskuko poltsa bat eraman zuen, eta, bertan errege-lamenduzko pistola zeraman (*El País*).

11

José Miguel Moros Peña

Atentatuaren data: 1986/06/27.

Heriotzaren eguna: 1986/08/13.

Adina: 18 urte.

Non jaioa: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Bi hilabete zeramatzan eraikuntzako peoi-lanetan, Ugandía eraikuntza-etxean, Dragados y Construcciones-ek azpikontrataturako enpresan; hari esleitu zitzaizkion Bilbo Handiko Ur Partzuergoaren Saneamendu Plan Integralaren obrak.

Egiletza: Iraultza.

Heriotza-lekua: Gurutzetako Ospitalean (Barakaldo), hamazazpi egun lehenago Portugaleten garabi zulatzaile batean jarritako bonba baten ondorioz.

Prozedura: Bonba bidezko atentatua.

Datu gehiago: Iraultzaren atentatu mortal bakarra izan zen, nahiz eta iturri batzuek, oker, beste heriotza bat egozten dioten Iruñean. Kasu honetan, Iraultzak zenbait dei egin zituen, Santurtziko Udaltzaingoari jakinarazteko artefaktua zegoela Portugaleteko saneamenduko planaren obren makina zulatzaile batean, baina erloju-mekanismoak huts egin zuen eta ez zuen eztanda egin. Gaztea hurrengo egunean lanera sartu zenean garabiarekin, bonba aktibatu egin zen eta eztanda egin zuen. Lehenengo ikuskaritzaren ondoren, ez zuten aurkitu eta pentsatu zuten "sarri jasotzen diren bonba-alarma faltsuetako bat" zela (ABC).

12

Iñaki Totorika Vega

Data: 2001/03/09.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: Portugalete (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Ertzaina. EAJko eta UGT sindikatuko afiliatua.

Destinoa: Hernaniko komisaria (Gipuzkoa).

Egiletza: ETA.

Lekua: Hernaniko Zinkoenea biribilgunean.

Prozedura: Tranpa-autoaren bidezko atentatua, urrunetik aktibatuta.

Datu gehiago: J.L.A.S. patruilako lankidea, 36 urtekoa, larriki zauritu zen eta Gipuzkoako hiri-riburuko Arantzazu egoitzan sartu zuten. Ondorio handiak geratu zitzaizkion eta, hori dela eta, ezin izan zuen ohiko lanekin jarraitu. Eusko Jaurlaritzak omenaldi-ekitaldia antolatu zuen, 2001/11/20an, Arkauten.

Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

2. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Víctor Manuel Pérez Elexpe

Data: 1975/01/20.

Adina: 23 urte.

Non jaioa: Portugaleteko Errepelega auzoa (Bizkaia).

Bizilekua: Sestao (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: PCE(i)-ko kide, gerora Partido de los Trabajadores de España (PTE) izan zena.

Egiletza: Guardia Zibilaren kabo bat, kaleko jantzita, gabardina batekin, udaltzain batekin zegoena.

Lekua: Bere etxetik hurbil Portugaleten, Sestaorekin mugan, PCE(i)-ren panfletoak banatu ondoren, Potasas de Navarraren meatzarien greba bultzatzeko.

Prozedura: Su-arma bidezko bi tiro, bizkarretik.

Datu gehiago: Familiak kereila bat jarri zuen, 1977an, eta artxibatu egin zen. Memoria Historikoaren Legeak Víctor Pérez frankismoaren biktima gisa aitortu zuen 2007an. Familiak, aldi berean, epaiketetan gizateriaren aurkako krimeneko biktima gisa aitortzeko eskatu zuen eta kereila bat aurkeztu zuen tiroketen egilearen aurka. 2013ko maiatzean, Konstituzio Auzitegiak babes-errekurtsua ezetsi zuen.

2

Felipe Baz González

Data: 1979/01/08.

Adina: 19 urte.

Non jaioa:

Bizilekua: Portugaleta (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Asuako Succión enpresako mekanikoa (Bizkaia).

Egiletza: Guardia Zibila

Lekua: Guardia Zibilaren Land Rover baten barruan; hara eraman zuten Galdamesetik Gueñerako errepidean gelditu zutenean, lagunekin zegoela, desagertutako ibilgailu bati buruz galdetzeko.

Prozedura: Su-arma bidezko tiroak, gertutik.

Datu gehiago: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren *Asmo politikoko indarke-riaren ondoriozko giza eskubideen urraketan biktimak* txostenean jasota dago kasu hori (2008ko ekaina, 447. or.). Land Rover-ean zeuden lagunek diotenaren arabera, Sopuertako kuartererako bidean, biktimak belarriak estali zituen, guardia zibiletako baten irainak ez entzuteko, eta horrek agentearengan, antza denez, haserrea piztu zuen, eta bi tiro eman zizkion, bularrean eta buruan.

Bizitzeko
eskubidearen aurkako
urraketak

3. **Egiletza argitu gabe**
duten urraketak **eta**
bestelakoak

1

María Teresa Torrano Frantzia

Erasoaren data: 1987/04/25.

Heriotzaren eguna: 1987/04/28.

Adina: 37 urte.

Non jaioa: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Semea eta alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: PSEko militantea 1977tik, monitore egon zen, zenbait aldiz, PSEk antolatzen zituen udalekuetan.

Egiletza: Udalerriko zazpi gazte, horietako bi adingabeak. Poliziak Mendeku taldeari atxikita egotea egotzi zien. Mendeku taldeak gezurtatu egin zuen salaketa hori 29an. José María Callejak eta Ignacio Sánchez-Cuencak, *La derrota de ETA* argitalpenean, "herriko autonomoen talde" gisa hartzen dute, "terroristen oso antzeko ekintzekin, baina erakunde zehatz batetik aparte egindakoak".

Heriotza-lekua: Gurutzetako Ospitalean (Barakaldo), atentatua gertatu eta hiru egunetara, larriki zaurituta zegoela, hirugarren mailako erredurekin gorputz erdian.

Prozedura: Atentatua Molotov koktelekin, Portugaleteko PSEren Casa del Puebloren aurka, barruan hamabost bat pertsona zeudenean.

Datu gehiago: Félix Peña Mazagatos atentatu berean hil zen. Maria Teresaren senarra, Jesús Ramos, PSEko udal-taldeko idazkaria, zauritu egin zen, bere emaztearen arropak hartutako sua itzaltzen saiatu zenean. Ebakuntza kirurgikoak egin behar izan zizkieten honako hauei: María Teresa Olalde, María Jesús García del Valle eta José Luis Villanueva, eta beste lau pertsona ere artatu behar izan zituzten, zauri arinengatik. Familiak, aurrerago, Maite Torrano Fundazioa sortu zuen.

2

Félix Peña Mazagatos

Erasoaren data: 1987/04/25.

Heriotzaren eguna: 1987/05/06.

Adina: 55 urte.

Non jaioa: Portugalete (Bizkaia).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Astilleros Españolesen Factoría La Navaleko langilea. UGT sindikatuan afiliatuta zegoen.

Egiletza: Udalerriko zazpi gazte, horietako bi adingabeak. Poliziak Mendeku taldeari atxikita egotea egotzi zien. Mendeku taldeak gezurtatu egin zuen salaketa hori 29an. José María Callejak eta Ignacio Sánchez-Cuencak, *La derrota de ETA* argitalpenean, "herriko autonomoen talde" gisa hartzen dute, "terroristen oso antzeko ekintzekin, baina erakunde zehatz batetik aparte egindakoak".

Heriotza-lekua:: Gurutzetako Ospitalean (Barakaldo), hamar egun lehenago Portugaleteko Casa del Pueblon jasandako zauri larriengatik.

Prozedura: Atentatua Molotov koktelekin, Portugaleteko PSEren Casa del Puebloren aurka, barruan hamabost bat pertsona zeudenean.

Datu gehiago: María Teresa Torrano Francia ere hil zen eta bere senarra zaurituta geratu zen, Jesús Ramos, PSEko udal-taldeko idazkaria, bere emaztearen arropak hartutako sua amatatzen saiatzean. Ebakuntza kirurgikoak egin behar izan zizkieten honako hauei: María Teresa Olalde, María Jesús García del Valle eta José Luis Villanueva, eta beste lau pertsona ere artatu behar izan zituzten, zauri arinengatik.

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitza, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.